

MUXIKA »

SOS Muxikak isurketa bat izan dela salatu du

San Roman auzoko bizilagunak kaltetu ditu oraingo honetan Inamako isuriak

AINARA GARCIA

Finsa-Inama enpresak beste isurketa bat egin duela salatu dute SOS Muxika taldeko kideek. Hala ere, enpresa horretako kudeatzaile Jose Manuel Sanchezen arabera, «Inamak ez du inolako isurketarik egin». Urdaibai Patronatoko teknikariak ingurua aztertzen ibili dira, SOS Muxikakoek deituta.

Oraingo honetan, Muxikako San Roman auzunean agertutako egur-hautsa izan da salaketa horren arrazoia. Auzotarren esanetan, «sarritan izaten dira horrelako isurketak. Inguru guztia hautsez beteta egoten da».

SOS Muxikako presidente Iñaki Markuerkiagaren esanetan, «gauean haizerik egon ez denez, San Romaneko auzotarrak kaltetu ditu isuriak. Ostera, ipar-haizea dagoenean, Zabale eta Txakale kaltetu ohi ditu. Beraz, haizearen arabera, kaltetuak Muxikako auzo ezberdinak izaten direla esango nuke».

Espediente zigortzailea

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak espediente zigortzaile bat jarri dio Finsa-Inama enpresari. Markuerkiagaren arabera, «Inamak ez ditu kontuan hartu Jaurlaritzak ezarritako neurriak». Horrez gain, zigor ekonomikoak ez dituela herritarren arazoak konponduko adierazi du Markuerkiagak.

© Busturialdeko Hedabideak S.L.
Tel.: 946187299 Faxa.: 946881193
E-posta: busturialdea@busturialdeko-hitza.info
Zubiaurtar Kepa, 72 Bermeo



Internet Ehuntzen S.L.-k garatutako webgunea